atzo Donostiako Konstituzio plazan. :: UNANUE

tzaroaren eskubideen deserrotze moralari buruzko nobela bat. EZ», dio, letra larri eta guzti. Zer den ere argitzen du: «Eguneroko ezbeharrei espiritu baikorrez aurre egiteko umeen ahalmenaz diharduen liburu bat da, desio pedagogikoak gidaturik eta, batez ere, umore dosi handiz». Piratak eta bere lagunek etengabe jartzen dituzte agerian helduen kontraesanak. Egilearen ustez gurasoentzat ere oso gomendagarria da liburua.

Eta, itxura batean, liburuok guztiak izan daitezke oso gomendagarriak hartzaileen adineko neska-mutikoengan irakur zaletasuna sustatzeko. Zeren eta, behin amuari lotuta, zailagoa baita ustez bueltarik ez daukan madarikazioa pairatzea eta, eskolak irakurtzera behartzen ez dituenean unean bertan, irakurtzeari erabat uztea.

La literatura como vehículo

El bilbaíno José Luis Urrutia ha firmado ya una decena de novelas, todas ellas de corte histórico, pero no se había decidido a escribir para jóvenes. Se ha estrenado por partida doble, ya que Erein ha editado simultáneamente en castellano y en euskera – 'Eneko de Padura' y 'Padurako Eneko', con traducción de Koro Navarro–, la novela en la que imagina un acontecimiento legendario desde la mirada de un joven del siglo IX, Eneko, que se ve envuelto en la batalla de Padura, que supuestamente se libró en Arrigorriaga, en la que los vascos, se enfrentaron al poderoso ejército astur-leonés. ¿Hay constancia histórica del hecho, o es una mera leyenda? A José Luis Urrutia no le importa demasiado la respuesta, porque «la intención principal no es impartir una clase de Historia, sino mostrar al público, especialmente al más joven, una parte de nuestro pasado». Para ello ha mezclado historia, mitología y leyenda y, para hacer llegar la mezcla a los lectores más jóvenes, la ha vestido de acción y aventura, convirtiendo la literatura en vehículo no solo de diversión y entretenimiento, sino también de conocimiento.

total') 2008.ean ekarri zuten. Web gune propioa du Gregek, eta filma ere bai, iragan urriaz geroztik. Euskarri horietan guztietan, modu bizibizian kontatzen du, gozagarririk gabe baina umorez, zein gogaikarria izan daitekeen nerabezaroa.

Nina engainatua

Adinean eta, Greg gizajoaren sufrikarioak gutxietsi gabe, biziko dituen esperientzien gordintasunean, urrats bat harago doa Nina, 'Ninak ospa' liburuko protagonista. Elkarrek argitaratu berri du, 2003an nerabeentzat propio sortu zuen 'Taupadak' saileko 'Bizi taupadak' azpisailean. Joxemari eta Maialen Berasategik alemanetik itzulia, Marliese Arold idazle alemaniar ezagun eta polemikoaren lanetako bat da. Ezaguna, haur eta gazte literaturan alemanez idazten dutenen artean goraipatuenetakoa delako. Polemikoa, gazteentzat idazten duenean ez dielako muzin egiten gai korapilatsuei: anorexia, bi nesken arteko maitasuna, hiesa...

Orain euskaraz irakurgai dagoen liburua 1996an argitaratu zen alemanez, eta handik gutxira gaztelaniaz, 'Nina se larga' izenburuarekin. Etxeko giroaz asperturik, irtenbidea gurasoengandik urruti dagoela uste du Ninak, Hanburg hiri handiak eskaintzen dion ustezko askatasunean, han aurkitzea espero duen bizimodu dirdiratsuan. Hanburgera iritsiko denean, ordea, ikusiko du adin txikiko, dirurik eta lagunik gabe, espero zuen etorkizun oparoa ez daukala zain autobusetik jaisten denean.

Hanburg bezalako hiri batek bere egoeran dagoen neska bati eskain diezaiokeena erakutsiko dion jendea –horien artean, zeharo liluratatuko duen Jonas– ezagutuko du luze gabe Ninak, eta hasiera batean fantasia itxura hartuko duen ametsa amesgaizto bilakatuko da, ezer ez baita Ninak uste duena: ez zerbitzari lana, ez Jonas, ez Jonasen maitasuna, ez argazkiak egitera bidaltzen duten agentzia, non ez diren bakarrik egiten modari lotutako argazkiak. Zuzentasun politikotik urrun dagoen kontakizun gordina da 'Ninak ospa', irakaspenik gabea baina oso argigarria.

'Euskal mitologiako kondairak haurrentzat' bilduma sortu dute

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. 'Euskal mitologiako kondairak haurrentzat' izenburuko liburu sorta jarri du abian Elkar argitaletxeak. Euskal mitologiako zenbait istorio umeentzako moduko era atseginean eskaintzea da helburua, eta Jesus Mari Olaizola 'Txiliku' arduratu da testuak idazteaz. Marrazkiak, berriz, Jose Anjel Lopetegik egin ditu.

Bi eratara jari da salgai materiala: batetik, hiru liburuxka; bestetik, hiru horiek biltzen dituen liburua.

Bi protagonista sortu ditu Txilikuk, Nerea eta Julen anaia-arrenak, bata bederatzi urtekoa, bestea zazpikoa. Berauek dira kontakizunen gidariak. Ordenagailua piztu eta itzaltzearekin batera, nahastuko dira errealitatea eta fikzioa ipuin hauetan.

Lehenengo liburuxkak 'Arratsalde bat Marirekin' du izenburu. Euskal mitologiako jainkosa eta amandre horrek badaki itxuraz aldatzen. Maju du bere senarra, eta bi seme ere baditu: Mikelats gazteena, eguraldia menderatzen duena, eta Atarrabi, deabruak itzala lapurtu ziona. Indar magiko handia duen beste izaki bat ere bada liburu honetan: Sugoi.

Bigarren liburuak –'Kontuz gizakiekin' delakoak– gizakiak, laminak eta jentilak elkarren ondoan bizi ziren garaia kontatzen du. Gizakiek, artean, ez zuten ogi zuria ezagutzen eta Martin Txiki burutsuak jentilei garia lapurtu behar izan zien. Kondaira horiez gain, liburu honek Goñiko zaldunak Aralarko herensugea nola akabatu zuen jasotzen du.

Hirugarren alean –'Arraioak!'– beldurrezko hainbat istorio daude jasota: adibidez, bi anaia ehiztarik Tartalorekin topo egin zutenean gertatutakoa, edota katu itxura hartzen duten sorginen kondairak.

J.M. Olaizola 'Txiliku'-k (Zarautz, 1951) eskarmentu handia du haur eta gazteentzako literaturgintzan. 2005ean Euskadi saria irabazi zuen 'Osaba Bin Floren'-ekin. Elkarren bertan ari da lanean, testugintzan.

EUSKAL MITOLOGIAKO KONDAIRAK HAURRENTZAT
Argitaletxea: Elkar. Salneurriak: Istorio laburrek 8na euro balio dute. Hiru istorioak biltzen dituen liburu ak, 17.

El creador Micah P. Hinson.

El cantante americano Micah P. Hinson publica la novela 'No voy a salir de aquí'

:: IÑAKI ZARATA

SAN SEBASTIÁN. La afición musiquera vasca ya conoce a Micah P. Hinson. El cantautor usamericano (Memphis, Tennessee, marzo de 1981) acaba de estar actuando en Durango y lo hizo también en el Victoria Eugenia durante el Heineken Jazzaldia 2009. Antes, había debutado entre nosotros en el diminuto Gazteleku zarauztarra.

Micah repetirá concierto en ese mismo teatro donostiarra el sábado 8 del próximo mes de enero. Y vendrá con doble novedad: el nuevo disco 'Micah P. Hinson and The Pioneer Saboteurs' y su primer libro: 'No voy a salir de aquí', comercializado en castellano por la editorial Alpha Decay, de 112 páginas y que se vende a 14,50 euros.

Una 'nouvelette'

El propio autor define su debut literario como una 'nouvelette'. Un libro «menor» en cuanto a tamaño, una novela breve que refleja en prosa el particular mundo de ficción que P. Hinson ha dibujado ya con frecuencia en forma de poesías para sus canciones. Su ficción escrita se centra en las experiencias vitales de dos jóvenes que además de ser muy solitarios están enfermos y se consideran unos malditos. Y están enamorados, se aferran al amor como única ancla salvadora para sus necesidades de supervivencia.

Un libro, en consecuencia, que hace honor al carácter de este rockero anti estrella que salió a la superficie pública, con 23 años, con su primer disco 'Micah P. Hinson and the Gospel of Progress', editado en 2004. Antes, en el 2000, y siendo un habitual de los fármacos, pasó un tiempo en la cárcel, acusado de falsificar recetas de medicamentos; y tuvo una complicada vida posterior. No es casualidad que en su novela aparezca mucho alcohol, pastillas y tristeza. Reflejo novelado de su propia azarosa juventud.